

Lehen be hemen gengozen

Aspalditxik nabil Ermuaren gaineko informaziñua kuadernotxo baten batzen: armarría, izenaren esanahíxa, Santiagorako Bidia, harresíxa, garrantzi estratejíkua, mendixen aberastasuna, errementarítzatik armagintzarako pasua... makiña bat datu eta interpretaziño, uztartzen gatzak. Zeozer eiñ bihar nebala eurokin eta ipuin hau bururatu jatan, benetazko datuetan oinarritxu eta mende batzuk atzerako Ermu haretara eiñdako salto fantasiosua.

Dinbi-danba maillukotsian emoten ditzugu orduak hemen. “*Burdin-gintza eta errementarítza*” irakurri notsan “Tailler Eskola”ko ikastaro bati. Batera-batera behin Legazpiko burdinolan ikusitxako gizonaren irudíxa etorri jatan akordura, hanketarainoko bere mantur luziaz, kapelapian baltz. Izena emon neban segíxan. Ume-umetatik izan naz erromantíku xamarra eta dana argi-indarrakin euala konturatu nintzanian, ha desilusiñua! Antxiñako erara auspuari eragítxen manduren bat topatzekotan nintzan. Horretxegaitxik akaso pozak zoratzen entzun neban Legazpira eiño gendula juanta etorri bat, burdiña lantzeko teknika trazionala gertutik ezagutzeko.

Autobuseko bidaia erdi lo eiñ neban; sutaíxak, maillukak, egurrikatza, galदारak eta goritxutako burdiñak bete eben nere burua. Mirandaolako harek eskíllara estuetan behera, beste aro baten sartzen nintzan sentzaziñua euki neban eta mendiak atzera salto eitxiaren bertígua sartu jatan sabelian gora. Ez jakin han kobazulo haretan zer gertau jatan. Berua, illuntasuna, izardíxa, emoziñua edo nire buru fantasiosuak eragíndako ka-lenturiagaitxik etc... gauzia da zorabiatu

e t a

bertan behera ziplo jausi nintzala. Nere onera etortzeeran, gelako lagunak neka-zen inguruan; mantur luziok jantzita, ikaztutako dozena bat begi, neuri begira.

- Ur pysquat nay duçu?- galdetzen entzun notsan Tello lagunari.

Buruari eragin notsan eta burdiñezko txolopotu zikin bat hurreratu zotan; erreparuakin begitxu banotsan be, tantanik laga barik iruntzi neban urori.

Santiagorako Bidia

Astuna eta luzia eiñ jatan bueltarako bidia: ointxe estartetan zihar gora, ointxe ota arteko bidezindorretan behera, makiñatxo bide moduko kamiño eta burdibide zapaldu zitxuezen gure abarketak. Handik eta hemendik erdi galduta ibilli ostian, gure apatxak estimau hartu eben Compostelarako Bidia. Hendaiatik etorren kostako bidia zan eta uste baiño erromes gitxiago topau genduzan bidiotan; paraje

lauauetara alde eiñda euazen itxuria.

Deba errekan gora lexarra, saukua eta urkíxa zian nagusi haren baztarretan. Elgoybar, Heybar. Mendíxak pagu, gatzaiña, arta eta harítz tantai itzelekin horniduta. Horrenbeste egur-arbola artian ez jatan txokau Olaerreagan burdinola bat topatziá; etxaurrian burdi pare bat materi-xalez beteta. Batek klarionaz Hermua-Somorrostro ekarren idatzitxa.


- Ene, urtu byharreco burdyñya honaino equarchen dabe contyçu!- aipatu neban

- Bay, paraje hau errementary, urchaylle eta olagyzon ugary ezagututacubada!- Telloren erantzuna aldamenetik

“Villa Ferrera” errekiaren gaineko zubi bat pasatziaz batera harritzko etxe sendokote bat bistaratu genduan pendize baten, harrotasunez zaintzen bide, burdi eta oiñezkuok. Etxeormiari etarata euazen harek lehíxo luzenkak, armen puntak etaratzeko zabaldutako aspillerok, erresetua emoten eben. Harengaitxik deitxu-ko ete zotsien Espilla? Zalduarako bidia- ren zaintze eta defensarako apropos ipiñitxakua zan Espilla. Estraperlistak majo ezagutuko ebezen haren kamiñuaren zirríkituak!

Hermua eremua

Bidiari aurrera eiñ geuntson. Hurriñera ikusten zan herríxa eta harresíxa. Bertaratu giñanian zerka batek inguratzen eban harresixori; ondo eta harri edarrakin eiñda euala ikusten zan. Bizkai aldian gitxi haren modukuak. Palazio Zaharreko atia jotzeeran ez dakit ze-



Casto Ziarsolo, “Kastotxua”ren tailarreko auspua.



✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71



ERMUA

Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalaríen umore ona

Espilla basarixa, Eitzaga eta Ermurako bidien zaintzarako altsautakua.



gaitxik tenplarixuak, monje gerlarixak etorri jatazen akordura. Ate bat, Bizkai-ko atia, mendi arteko paraje antzua, sasoi baten basamortua, eremua, Ermua, Hermua, pasozko lekua, estratejikua. Hiru kale besterik ez: Barrencalle, Artencalle eta Goyencalle. Eliz onduan kanposantua eta elizaurreko plaza parian konzejuaren, Udalaren etxia. Herriko armarría ekan orman landuta; sinbologiaz betetakua begintxandu jatan. Zapata zan, merkatu eguna.

*"Quinquilleruac etorry dyra,
Hermuco calleco arcuypetara,
gauça guçtyac merque-merquyac"*
kantatzen eban narruzko zahagi bat lepuan eroian gizontxo batek.

Erosliak, saltzailliak eta umiak pillatutako generuan artian ebizen. Lapikuak,

marmintxak, giltzak, zerrailak, aizkorak, atxurak, ultzak, abarkak, zahatoak... jateko eta janztekiekin nahasten zian.

- Egun ona gure Jaunac emon deiçuela!- izan zan hazi eta bedar saltzen euan atso baten agurra.

- Halan çury equarria!- gure erantzuna.

Aurrian zabal-zabal eiñda zitxuan bedar, edabe eta pomadena makurtu nintzanian, isildu eziñeko txilimalan hasi jakun: hazur trokadurendako? esne, linaza, kipula eta lirio lorian enplastua; atzamarrren haunditxasunerako? gantza, erretxiña, argizari, xaboi, ezti, orixo eta esniakin eiñdako pomadia; hankapixen gogortasunetarako?... Nekatuta neuan, ez nintzan gauza haren barbarako goguari jaramon eitxeko eta lepua emon notsan. Batera-batera eta bi pausu emon aurretik, papa-

rretik oratzen nekan, "lapurra, lapurra!" garrasika. Askatzeko ahalegiñak eiñ nitxuzan, baiña alperrik, txakur amorratuan pare euan neuri katitxuta eta...begixak zabaldu nitxuzan. "Tailler Eskola"ko irakaslia nekan onduran makurtuta, matraillekuak emoten neure onera ekartzen laguntzeko. Izarditxuta neuan. "Nundik norra ibilli naz? Ze ameseta klase izan da hau?" pentsatzen nindoian autobusera bidian. Fresko euan. Txamarria lotu eta eskuak poltsikuetan sartu nitxuzanian, ha ezustekua: gurutze txiki bat eta vieira bat nekazen kartera onduran. Tenplarixuak eta erromesak etorri jatazen akordura.

Idatzia: Estibalitz González

*Datuak: Inaki Arregi, Jon Cano, Txisko Fernández,
Mikel Zabala, Angel González, Héctor Izagierre,
J.M. de Sarandiarán, J.R. de Iturriza*

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea
943 17 00 65

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

Aldapa 1

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

943 17 60 52